



Nerabezaroan arauak ezartzea posible da

*Urola Garaia Mankomunitateak, **martxoaren 29an**, Legazpiko Kultur Etxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 18:00etan, familientzako **hitzaldi-tailerra** antolatu du. Landuko den gaia, nerabezaroan arauak betetzeko nerabeek agertzen duten jarreraren inguruan izango da.*

Nerabezaroa heltzean, familia giroa nahastu eta familia-harremanak okerrera egin dezake, gatazkak eta eztabaidak biderkatuz. Haurtzaroan komunikazioa ona, txantxak, musuak eta besarkadak izaten dira tarteko. Nerabezaroan, aldiz, aurpegiera serio, liskar edota eztabaidak izaten dira. Hala ere, zorionez, egoera horrek ez du luzaro irausten eta nerabezaroak aurrera egin ahala harremana normalizatzen doa.

Harreman eta giro ona dagoen familietan ere, komunikazio haustura eta seme-alaba eta gurasoen arteko liskarrak eman daitezke. Ematen diren gatazkak ez dira zertan larriak izan behar. Normalean, eguneroko tira-birak izaten dira: etxera itzultzeko ordua dela, ikasketei eskainitako denbora edota beraien janzkera.

Horrela izanik ere, seme-alaba eta gurasoen artean sortzen diren liskarrei duten garrantzia eman behar zaie. Izan ere, maiztasunez ematen direnean, tentsioa pilatu eta gurasoengan estresa eragin dezakete.



Arrazoi desberdinak egon daitezke nerabeek arauak eta arauak jartzen dituztenak ezbaian jartzeko:

Nerabeen gaitasunak garatzen doaz nerabezaroan eta horrek eragina du gurasoekin sortzen duten harremanean.

Ikuspuntu desberdinak bateratzeko gaitasuna garatzen dute. Gaitasun honek gurasoen idealizazioa kolokan jarri eta irudi errealistagoa izatea ahalbidetzen die, beraien ezaugarri positibo zein negatiboak aintzat hartuz. Errealitatea edo ezarria dagoena izan daitekeenaren aukera posible bat dela jakinda, arau sozialak eta familiako arauak zalantzan jartzeko gai dira. Haurtzaroan, egoera hau pentsaezina da, arauak onartu eta gauzak egiteko modu bakarra ezagutzen dutelako.

Gaitasunak garatzea, bestelako perspektiba batetik, gauzak zalantzan jartzea, kritikatzeko, argudioak erabiliz eztabaidatzea edota alternatiba berriak garatzea dakar. Negoziatzeko gaitasun handiagoa dute eta familiako erabakietan parte hartzeko nahia agertzen diete gurasoei.



Bestalde, nerabezaroko hasierako epealdian, gurasoekiko distantzia hartzen dute. Distantzia horren beharra dute, heldu eta autonomo bilakatzeko. Banantze edo "desamodio" horrek, gurasoen irudi idealizatua errealistago bihurtzen du, -maiteminduta dauden bikoteei gertatu bezala- non gurasoen akatsak presente dauden.

Jakina da, harreman afektiboarekin hautsi eta dependentzia emozionala gainditzeko estrategia on bat, akatsak bilatzea dela. Hori da hain zuzen ere, seme-alabek egingo dutena gurasoekin. Prozesu normala da. Prozesu horrek, gurasoen irudi errealistago bat eratzea eragingo du.

Nerabeek, autonomia gehiago eta eragiteko gaitasun handiagoa nahi izaten dute. Gurasoek, nahi hori ez dute beti gogo onez hartzen. Egoera horri aurre egiteko, gurasoak, haserretu, kontrola eta murrizketak ezartzen hasten dira, gatazka maila biderkatuz.



Ref. Revista: "Adolescentes" nº1 "Llegó la Adolescencia" (Alfredo Oliva, Victoria Hidalgo, Águeda Parra, Moisés Ríos)

ETXADI. 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua
Egin zure kontsulta telefono bidez: 944 05 15 49 (Asteartetan: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30era) **edo** www.etxadi.org **webgunean** [Urola-Garaia Mankomunitateko inprimakia betez.](http://www.etxadi.org)